

# AMA DONZELLA DOLORETAKUAREN

## ZAZPI EZPATAK.

---

¡O zé oñazak, Jesus-en Ama,  
Zeuben Biyotzen erdian,  
Simeon zarrak biyo ezpatak  
Aitatutziaz batian!....

¡O zéñ minduba, Ama, Josegaz  
Jesús zenduban gordeko,  
Ijito-alderonz gabaz igasi  
Erodes-ek ez ilteko!....

¡O zéñ illuña Biotza eukazun,  
Ama minduraz betia!  
Iru eguntan uri guztian  
Eziñ billaurik Semia!....

¿Nórk esan, Ama, zeure naigabe  
Gogorrak, ikusitzian  
Zure Semia Kurutze kargaz  
Samintasungo kalian?....

¡Ama! ¿zelan iraun, añbeste miñez  
Kalbariyuan jeigita,  
Zeure Jainkoa zekusazula  
Kurutze baten josita?....

¡O zé negarrak, Ama gozua!  
¡O zé anpulu malkuak,  
Kurutzepian Gorputz illotza  
Artzian zeure altzuak!....

¡O zé penia, Gorputz santua!  
Obi barriyan ichirik!  
Ama Donzella; gorde gagizuz  
Beti graziyan bizirik.

### Erregua.

¡Zazpi ezpata-miñez josiya,  
Andra Donzella Maria!  
Zeure Jesus-en eruapenaz,  
Emon eiguzu grazia,  
Artzeko beti pekatu danen  
Damu guztizko aundia;  
Bera maitetan igaro daigun  
Geure bizitza guzia,  
Zeu ta beragaz jaritsi arte  
Zerubetako gloria.

BALBINO GARITA-ONANDIA-KOAK.

---